



### LE LYCÉEN / WINTER BOY • Frantzia

Christophe Honoré (zuzendaria, gidoilaria)  
Juliette Binoche, Vincent Lacoste eta Paul Kirchen (aktoreak)  
Philippe Martin (ekoizlea)



Ezker-eskuin, Vincent Lacoste, Juliette Binoche, Christophe Honoré eta Paul Kirchen.

JORGE FUENMUENA

# Gaur egungo nerabe baten atakak

SERGIO BASURKO

Christophe Honorek errelato intimo bat dakar *Le lycéen* filmean, hain zuzen bere bizipen pertsonalitik oso gertu baitago. Hamabost urte zituela galdu zuen aita zuzendari frantziarrak eta modu irekian adierazi izan du bere homosexualitatea, Lucasen pertsonaiaren oso antzera. "Nahi nuen filmaren forma nerabe batena izatea; filma modu heldugabe batean kontatzea, irismo apur batekin, bere zalantzekin. Nahi nuen filma bere burua aurkitzen joatea eta ez hasieratik heldua izatea, baizik gazte baten filma izatea", azaldu du Honorek prentsaurrean.

Gainera, gogoeta egin du "nerabezaroa besteengan ere proiektatzen dugulako", eta, horrela, film honetan "beste batzuek hari egiten dioten begiradagatik balioa ematen zaiolako". "Zinemagilea naizen aldetik, zinema beste arte batzuekiko nerabezaroa dela jakitea gustatzen zait, zinemak amaitu gabeko forma izan behar du, zehazteke dagoena, eta ez solemnegia", esan du, eta, bere ustez, "nerabezaroa zineman irauten jarraitzeko modu bat da".

Paul Kircher, Juliette Binoche eta Vincent Lacoste aktore protagoniste-kin eta Philippe Martin ekoizlearekin batera aurkeztu du zuzendariak bere

**"Zinema nerabe bat da beste arte batzuekin alderatuta"**  
(Christophe Honoré)

filma. Honorek azaldu duenez, aktore asko ikusi zituen, 300 gazte inguru, Paul Kircher filmeko protagonista aukeratu aurretik. "Banekien gaurko gazte baten bila nentilela, nortasun oso indartsu baten bila, ez bakarrik

### A personal reflection on grief and loss

*Winter boy* tells the story of 17-year-old Lucas whose teenage world is suddenly shattered by the death of his father. The director, Cristophe Honoré, accompanied by his actors Paul Kircher, Vincent Lacoste and Juliette Binoche, answered questions about his film at a press conference they gave yesterday after the screening of the film in the Official Section.

The film addresses how each of the main characters deals with grief and loneliness. Honoré acknowledged that it had been especially challenging to get

inside the head of a teenager, as it had been a long time since he was 17, and that he had aimed to tell the story in a rather immature way that reflected the perspective of a teenager in both a narrative and a formal sense. This is not the first time that Juliette Binoche has played a grieving widow and she didn't hesitate to join the project when Honoré got in touch with her, but on this occasion she admitted that she had needed to make a superhuman effort as in the presence of children her grief intensified as it had to be kept hidden.

nire gustuko sentsibilitatea zuen aktore baten bila", adierazi du.

Paul Kircher gaztea jarri da Lucasen azalean, paper zorrotza oso, aita galdu berri, nora ezera doan gaztea baita protagonista. "Egunero eszena desberdinak egiten genituen, egunez egunera filma osatzu joan ginen eta sormen prozesuarekin jarraitzen genuen egunero. Baziren eszena batzuk zailagoak, baina ez dakit zehazten zein", ohartarazi du.

Suizidioaren eta gaixotasun mentalen gaiari ere heltzen dio *Le lycéen* lanak. "Bizi dugun aldiak, covidarekin eta abar, ahuldu egin ditu gazteak. Pertsonak oso hauskar bihurtu ditu. Filma horren oihartzuna dela uste dut. Lucasen erretratuaren bitartez argazki bat egiten da nola gazte honiek talka egiten duten munduarekin; mundua haientzat hotza da. Erretiro sentipen bat badago, baita uko bat ere gazte horien aldetik", gaineratu du zuzendariak.

Horiekin guztiekin batera dago, halaber, Quentin anaia (Vincent La-

coste), heriotzaren aurrean bizi diren herritik Parisera joateko hautua egiten duena, dolua familiatik urrun bizitzeko. Eta bi anaien helduleku nagusia, ama, Juliette Binochek interpretatua.

Herenegun gauean Donostia Sarria jaso ondoren, prentsaren aurrean izan zen atzo goizean ere filmaren aurkezpenean. "Uste dut denok bizi ditugula doluak. Gure burua proiektatzen dugu egoera horietan. Egia da semeen presentziarekin biderkatu egiten dela oinazea. Ama horrek ezkutatu egin behar du bere mina. Norberak bere emozioei eutsi behar dienean ez azaleratzeko, nolabait, gain indar bat sortzen da. Senarra gazte galdu duten emakumeen kasan egunero umeekin biteztea ez dut imajinatu ere egin nahi zeinen gororra izango den. Nik ez ditut emozioak fabrikatzen, haien probokatzen naute ni. Prozesu organikoa da. Christophek nahi izan du oso egoera pertsonal batez hitz egin, eta horrek erantzukizuna areagotu egiten du nigan", amaitu du Binochek.


## Zine argitalpenak Publicaciones de cine Donostia Kultura

Zenbaki historikoen  
salmenta espeziala  
Venta especial  
números históricos


Katalogo osoa eta salmenta  
Catálogo completo y venta  
[www.donostikultura.eus](http://www.donostikultura.eus)

Informazioa  
Información  
[cinema\\_cinema@donostia.eus](mailto:cinema_cinema@donostia.eus)

Colección  
Nosferatu  
Bilduma



Liburuak / Libros 6 €



Aldizkariak / Revistas 4 €



Beldurrezko  
Astea  
Semana de Terror

Liburuak / Libros



8,50€



8€



2€

